


ERREDOX BALORAZIO BOLUMETRIKOA: PERMANGANIMETRIA(FeSO₄)

Helburua: Saiakuntza honen bidez kontzentrazio ezezaguneko FeSO₄-zko ur disoluzio baten molartasuna zehaztuko dugu erreodox bolumetria bat erabilita, eta oxidatzaile gisa KMnO₄ erabiliz.



PROZEDURA: Pretatu margazkiaren muntaia



- 1- Prestatu KMnO₄-tan 0,01 M den 250 mL disoluzio.
- 2- Bete bureta eta enrasatu
- 3- Prestatu azido sulfuriko 1 M den 100 cm³ disoluzio.
- 4- Hartu erlenmeyerra, gehitu 20 mL burdin(II) sulfatoa, prestaturiko azido sulfurikoaren 15 cm³, diluitu gutxigorabehera 80 cm³-raino, eta gehitu 3 mL H₃PO₄ kontzentratua. Honek, Fe³⁺-rekin uretan disolbagarria den konplexu kolorge bat eratutako du baliokidetasun puntua hobeto ikusteko.
- 5- Jarri prestatutakoa buretaren azpian eta orri zuri baten gainean. Hasi balorazioa egiten, hau da, buretaren giltza ireki eta permanganato erortzen den bitartean irabiatu.
- 6- **Kontuz** irabiatu erlenmeyerreko disoluzioaren kolorea **arrosa** izan arte (KMnO₄ oso diluitua).



- 7- Balorazioan amaitzerakoan gastatutako potasio permanganatoa apuntatu.
- 8- Errepikatu balorazioa beste hiru aldiz. Ontzat ematen den balioa antzekoak diren balioen batez bestekoa izango da.

LORTUTAKO BALIOAK ETA KALKULUAK:

BALORAZIOA	1	2	3	4	$\bar{V}$
$V_{(\text{KMnO}_4\ 0,01\ \text{M})}$					

1-Idatzi gertatu den oxidazio-erredukzio erreakzio ionikoak eta molekularra doituta:

2- Erabilitako FeSO_4 -ren disoluzioaren kontzentrazioaren kalkulatu